

Italiarren parte hartzea Espainiako Gerra Zibilean Euskal Herrian



Eneritz Mitxelena

Historian Lizentziatua

Laburpena

Hemengo lan honetan Espainiako Gerra Zibilean euskal lurretan italiarrek izandako parte hartzea azalduko da. Gerra Zibila piztean nazioarteko herrialdeen jarreretan Italia kokatu, eta honek Euskal Herrian izandako parte hartzeaz ariko da. Parte hartze hau Italiako estatu faxistaren aldetik zein Italiako Nazioarteko Brigadisten aldetik begiratuko da.

Review

The aim of this work is to analyse the participation of italians in the Basque Country during the spanish Civil War, with an international perspective. The research is on the position and participation of both fascist state od Italy and italian International Brigades.

1. Nazioarteko potentzien erantzuna Espainiako Gerra Zibilaren aurrean

1936ko uztailaren 17ko altxamenduaren aurrean, Europako eta nazioarteko potentzia desberdinek beren interes edo momentuko ideologiei jarraiki alde batekoen zein bestekoen alde egingen dute era nabarmenean edo ezkutuagoan. Kontuan hartzekoa da Gerra Zibilaren aurreko urteetan eta hau lehertzerako momentuan, nazioarteko harremanak tentsio handikoak zirela, batez ere Hitlerrek Renania berriz militarizatzeko eta Mussolinik Etiopia okupatzeko hartutako erabakien ondoren. Horrela, potentzia ezberdinek Gerra Zibilean parte hartzea, nazioarteko harremanen oreka hausteko eta desio ez zen, nahiz honi aurre egiteko prestaturik ez zeuden, gatazka bateri hasiera emateko arrisku bezala ikusten zen.

Gerra Zibilean aurkari ziren bi aldeek, segidan jo zuten nazioarteko laguntza eske. Alde bakoitzak ongi zekien nora jo, Espainia barruko borroka hurbiletik ukitzen baitzituen Europako potentzien interes politiko, ekonomiko eta estrategikoak, nahiz garaiko ezker zein eskuineko mugimendu handien interes ideologikoak.

Jose Giralen gobernu ezkerreko liberalerak, laikoak eta masoiez osatzen zen, eta Herri Frontea osatzen zuen koalizioak laguntzen zuen, azken hau sozialista, anarkista eta komunistek osatzen zutelarik. Hiru partidu hauetatik soilik komunista zen III. Internazionalaren parte eta berak jaso zezakeen Comintern-aren laguntza. Partidu sozialista berriz, “Langilegoaren nazioarteko sozialista”-ren kide zen, baina erakunde hau krisian aurkitzen zen. Altxatutakoek ere ez zuten hasieran kanpoko laguntzarik, baina Italia eta Alemaniarengana zuzendu ziren beharrezko zuten gerra ekipaia eskuratzeko. Honetarako, ez zuten inolako aliantzarik egin, altxatuak faxisten eta nazional-sozialisten laguntza eskuratzeari ziur baitzeuden, garaiko gertaeren aurrean ezikusiarrena egitea ezinezkoa zatekeelarik.

Honela, Gerra Zibilean aurkariak izango ziren bi aldeek egindako eskariak eta hauei emandako erantzunak ekarriko zuten gerraren nazioarteko izaera. Bertan, Europako potentzia handienak (Frantzia, Sobietar Batasuna, Alemania eta Italia) eta Ameriketako zenbaitzu nahastu zirelarik.

Lehenengo pausoa emanen zuena Hitler izanen zen, altxamendua burutu eta handik aste batera Berlinera joandako Nazionalen delegazio bati garraiorako Junker hegazkinak agindu zizkionean. Ordezkar horien bitartez Francok Hitlerri eginiko eskariak ez ziren oso handiak izan, baina Hitlerrek, era oparoan erantzun zuen, hogeit hamar Junker hegazkin bidaliaz. Honela, uztailaren 28tik aurrera, alemaniar hegazkinak Afrikan altxatutako tropak penintsulara igarotzen lagunduko zituzten. Tropak igarotzeko ekintza hau bukatzeko, alemaniar itsasontziek lagundu zuten, errepublikar flota ezinduaren aurka arituz.

Hitlerrek Espainiako altxatuei emaniko laguntza handia eta azkarrari buruz hitz egin zuen, arrazoi ezberdinak aipatu zituelarik: Espainian komunismoa zabaltzeko zegoen arriskua, edo eta Gibraltarko estugunea kontrolatzeko potentzia lagun baten beharra bezalako arrazoiak. Tarteka, Espainiako mineralen garrantzi estrategikoari buruz ere hitz eginen zuen. Zenbait historialariren aburuz, Hitlerren interbentzioa, Espainian altxatutakoei laguntzea, epe luzeko arrazoi estrategiko eta diplomatikoen ondorioa izanen zen (Madrilen gobernu filoalemaniar bat ziurtatzea eta aldi berean Frantziaren eragin eta aukera politikoak murriztea) eta Renania okupatzean 1936ko martxoan irekitako ekinbide politikoaren jarraipen bat litzateke.

Italia faxistarekiko harremanak berriz, altxamenduaren aurretik hasi ziren, 1934an egitea pentsatu zen errebolta militar bat diruz lagundu baitzuen Mussoliniren gobernuak. Altxamenduaren ondoren berriz, Luis Bolin matxinoa Italiako kanpo ministerioko buru Galeazzo Ciano kondearekin elkartu zen eta azken horrek laguntza emateari baiezkoa eman zion. Baina, laguntza ez zen berehalakoan iritsi, atzerri ministroaren baiezkoaren aurrean, Mussolinik ez baitzuen argi kanpo politika nola bideratuko zuen, eta ondorioz, ezta Espainiako altxatuen eskarien aurrean zein jarrera hartu. Hasierako zalantzen ondoren, laguntza uztailaren 30an abiatu zen Italiatik.

Mussolinik altxatuak laguntzeari hasieran ezezkoa eman bazion ere, altxatuak ondoren Hitler-engana zuzenduko zirela jakinda egin zuen. Azken honen erantzuna ezin lehenagotik asmatu, nola ekiten zuen jakitea seguruagoa zen bere gobernuarentzat. Baina Frantziako prentsak Blum-ek Errepublika arma bidalketekin lagundu zuela jakitean, Mussoliniren erantzuna baiezkoa izan zen, berak ere matxinatuak hornitzeko konpromezua hartu zuen. Hasierako arma bidalketa mugatuak, denborarekin handituz joanen zen, batez ere Alemaniarekin eginen zituen aliantzen ondoren.

Espainiako gerraren aurrean elkar ulertarazteko eta hurbiltzeko italiar-alemaniar saiakerarako pausua eman zuena Alemania izanen zen, Erromara zerbitzu informatiko militarren buru Wilhelm Canaris bidaliaz Mario Roatta, Italiako informazio zerbitzu militarren buruarekin elkar zedin. Bi militar hauen arteko elkarrizketa, bakoitzak ordezkatzeko herrialdeak Espainiara lehenengo laguntzak bidali ondoren egin zen, eta elkartze honetan altxatuak laguntzeko borondatea berretsi bazuten ere, ez zuten elkarlanerako zirriborrorik edo inolako akordiorik egin. Italiar eta alemaniar militarren arteko lehenengo koordinazioa, abuztuaren bukaeran egin zen. Koordinazio hau, Francori alemaniar eta italiar misio militarrek helarazteko emanen zen, aholkulari militarrek bidaltzeko hain zuzen ere. Canaris eta Roatta beste behin elkartu ziren gai honen inguruan eztabaidatzeko, eta ordezkatzeko zituzten gobernuak altxatuen mugimenduari laguntza bidaltzen jarraituko zutela berretsi zuten oraingo honetan ere. Bidali beharreko laguntzak italiar eta alemaniarren artean neurri berdinean banatzeko akordioa egin zuten; beharrezko kasu guztietan, italiar eta alemaniar militarrek parte hartze zuzenerako ere bidaliko zirela, soldadu hauek italiar eta alemaniar militarren agindupean jarraituko zituelarik

beti ere. Francori bidali beharreko misio militarren inguruan berriz honakoa erabaki zuten: material militarren eta hauen erabilera erakusteko jende espezializatuaren bidaltzea; egoera politiko eta militarren hurbileko jarraipena; eta Espainiako indar italiar eta alemaniar oren gidaritzaren herrialde hauen esku egotea.

Urriaren 24an Ciano, kanpo gaietarako ministro italiarra, Hitlerrekin bildu zen, eta altxatuei bidali beharreko laguntzen kopurua handitzea erabaki zuten, Madrilaren konkista azkartzeko eta Sobietar Batasunak errepublikarrei bidalitako laguntzei aurre egiteko. Hitlerrek okasioa italiar-alemaniar aliantza bat proposatzeko erabili zuen, komunismoaren aurkako aliantza ideologiko gisa ulertu beharrekoa, eta Ciano baietza eman zion, Mussoliniren erantzunaren esperoan. Azaroaren lehenean Milanen emandako kanpo politikari buruzko hitzaldi batean, Mussolinik lehen aldiz aipatu zuen “Erroma-Berlin ardatza”. Mussolinik esku hartze hau era ezberdinetan justifikatu zuen: Espainian estatu komunista baten eratzea ekiditeko saio gisa, edota italiar izpiritu borrokalaria indartzeko saio gisa, Etiopiako kanpaina bukatu baitzen ordurako.

Nazioarteko iritzi publikoak, Italia eta Alemaniak legezko gobernu baten aurkako altxamendua laguntzea, faxismoak demokraziaren aurka egindako ekintza bezala ulertu zuen. Honela, egoera guztiz kontraerankorra sortu zen, alde batetik gerran ez parte hartzeko aukera eta beste batetik legezko gobernu bati egindako eraso baitzeuden jokoan. Errepublikak ez zuen hasierako momentuetan armak jasotzeko altxatuek izanen zuten erraztasunik izanen, laguntza espero zezakeen herrialdeetako iritzi publikoa bitan zatituta baitzegoen Gerra Zibilari zegokiolarik. Kontraerrian honen aurrean zailtasun handienak izan zituen herrialdea Frantzia izanen zen, 1936ko apirilaz gero Herri Frontea baitzegoen gobernuan, Léon Blum buru zuela. Errepublikaren gobernuak Frantziari eginiko laguntza eskaeraren eta honek hasierako laguntza onarpenaren ondoren, Frantzia eta Ingalaterrako diplomaziaren aukera “ez esku hartzea”-rena izan zen; hau da, gudu nahasturiko bi aldeekiko erabateko neutraltasuna eta Espainiara armak bidaltzeko edo bidalketa laguntzeko erabateko debekua. Erabaki hau, mundu mailako gerra bat ekiditeko eta nazioarteko oreka berrezartzeko Ingalaterrak bideratutako politikaren ondorioa izan zen, eta akordio honi, AEBak ezik, nazioarteko potentzia nagusi guztiak batu zitzaizkion. Aukera hau Errepublikarentzat kaltegarria izan zen bi arrazoirengatik: alde batetik, legezko gobernu errepublikarra nazioarteko ezagutzarik gabe geratu zelako; bestetik, neutraltasunaren aukera Alemania eta Italiak nazionalak lagundu ondoren (tropak Afrikatik penintsulara igarotzeko eta arma bidalketen bitartez emandakoa) hartu zen.

Ingalaterrako ezker neutralitatearen aldeko agertzen zen, baina era berean, Espainiako gobernu legalari armak saltzea defendatzen zuen; bestetik, Stanley Baldwin kontserbadoreak gidatutako gobernuak, neutralak izateak gatazkaren parte ziren bi aldeei modu berean armak saltzeko beharra ekartzen zuela adierazi zuen. Hogeita hamargarren hamarkadan Ingalaterrako klase agintariarentzat arriskutsuagoa zen komunismoak eta bere atzean Sobietar Batasunak ekar

zezaketen arriskua, Germaniaren berrarmatze edo Mediterraneoan Italiaren konpetentziak ekar zezaketena baino, bi potentzia hauek ez baitzuten jabetza pribatua eta ordenu soziala arriskuan jartzen. Eta momentu honetan Espainiatik iristen ziren berriek sobietar agenteez eta erregimen komunista baten berri hitz egiten zuten. Honela, klase agintariak ezin zuen legezko gobernuaren defentsan agertu. Aipaturikoak argi adierazten du momentu honetako nazioarteko tentsio politiko-ideologiakoek ekartzen zituzten zalantza eta kontraesanak, sozialismoaren mamurik atzean ikusi ezean, Ingalaterrak zilegizko gobernuaren aldeko hautua askoz ere errazago egingen baitzuen. Ingalaterrak neutraltasunaren aldeko hautua egin zuen hasieratik bertatik, eta hautu hau beste potentziek har zezaten ahalegindu zen. Bere politika neutraltasunaren aldekoa zen, nazioarteko oreka babestu asmoz eta parte hartze batek ekar lezakeen Europa mailako gerra bat saihestu asmoz.

Aurrerago aipatu bezala, Frantzia gauzak konplexuagoak izanen ziren. Apirileko hauteskundeak Herri Fronteak irabazi zituen, zentro-ezkerreko koalizioak, eta Léon Blum sozialistak Frantzia Herri Fronteak gidatutako lehenengo gobernu osatu zuen. Herri Fronteak faxismoaren kontrako mugimendu ezberdinak biltzen zituen bere baitan, eta horrela, Madrileko gobernu Frantziari laguntza militarra eske zuzendu zitzaionean, Blumek armen salmenta onartuko zuela erantzun zuen. Frantziaren Errepublika laguntzeko berehalako aukerak honako honi erantzuten dio: alde batetik nazioarteko eskubidea alde zuten, legezko gobernu batek zilegi baitu armak eskuratzea barne errebolta baten aurka egiteko; Frantziako ezkerak adeikortasun handia zuen ondoko herrialdean ere gobernuan zegoen Herri Frontearekiko; bestetik, arrazoi estrategikoak aurkitzen ziren, altxamenduak bere helburua lortuz gero, Frantzia hiru potentzia (Alemania, Espainia eta Italia) totalitarioren artean aurkituko baitzen; eta Espainian erregimen aurkari bat edukitzeak ere, Afrikako kolonietara iristeko ezinbesteko bidea itxiko zion. Errepublikaren gobernu sostengatzeko zituzten arrazoi guzti hauen aurrean, Blumek abuztuaren 8an iritzi edo strategi aldaketa bat burutu zuen, momentu honetatik aurrera ez baitzuen gobernu errepublikarrari armak saltzea beharrezko ikusiko. Iritzi aldaketa honetan garrantzi handikoak izanen dira komunikabide frantziarrak Espainiari egin beharreko armen salmentaren aurka agertu izana, salmentak Frantzia gerra edo iraultzan barnera zezakeelakoan baitzeuden. Aldi berean, Frantziako eskuinak indar handiz babestu zituen altxatuak, Blumek gero eta hurbilago ikusiko zuelarik Frantzia ere estatu faxista bat egokitzeko aukera. Arrazoi guzti hauei, eragin ingelesa gehitu behar zaie, Frantzia “ez esku hartze” pakto bat sinatzera behartu nahi zuena. Ingalaterrak ez zuen honetarako bere nazioalekiko abegi ona ezkututzen, bere iritzi, altxatuak Espainian anarkiarekin bukatu eta ordenua ezartzeko indar eraginkor bakarrak baitziren. Gainera, kontutan hartzekoak izanen dira egun horietan Blumek Ingalaterrako lehen ministroareb aldetik jaso zuen presio handia.

Blumek gobernu errepublikarra laguntzeko hartutako erabakiaren ondorengo egunetarako, Belgikako eta Ingalaterrako atzerri ministroekin bilera bat hitzartua zegoen,

uztailaren 23-24 egunetarako. Bilera horretan, hiru estatu horek Italia eta Alemaniaren aurrean hartu beharreko jarreraz eztabaidatu zuten, Europako oreka mantentzeko eta gerra bat ekiditeko hartu beharreko jarreraz. Bilera honetaz baliatuz, Baldwin gobernu ingelesaren buru kontserbatzailea Blumekin bildu zen, Espainiako gerrari zegokionean prudentzia handiarekin jokatu behar zela proposatuz, gerra nazioartera ez zabaltzeko.

Presio eta momentuko jarrera guzti hauei erantzunez, uztailaren 30an Blumek Madrili armarik salduko ez ziola jakinarazi zuen, baina 25erako jada arma batzuk bidali zituen errepublikaren mesedetan. Hartutako erabaki horren truke, ordea, honakoa proposatu zien potentzia handiei abuztuaren 8an: potentzia guztiek Gerra Zibilean ez parte hartzeko eta gatatzeko alde biei armarik ez saltzeko konpromisoa hartzea. Esku ez hartzeko paktu bat sinatut zuten, proposamen honi jarraiki, Ingalaterra, Frantzia, Alemania, Italia eta Sobietar Batasunak politika komun honen oinarri gisa, eta erakunde bat osatu zen jarrera hau aurrera eramanez eta ziurtatzeko.

Baino paktu honetan sinatutako neutraltasunak, ezaugarri berezi xamarrik izanen zituen: “Esku ez hartzearen” komisiok Londresen zuen bere egoitza, atzerri ministerioko langileez osatua, buru gisa zegoen bikoteak ez zuen batere ziurtasunik eta italiar zein alemaniarren presentzia ugariaren presiopean aurkitzen ziren. Paradoxa handienetako bat honakoa izanen zen, komisiok honetara soilik parte hartzaile zirenek aurkeztu zituzketela eztabaida gaiak edo Espainiako gerrari zegokion ekintza baten inguruko probak. Horrela, Espainiak komisiok honetan parte hartzen ez zuelarik, gobernu errepublikarrak ezin zituen Italia eta Alemaniaren aldetik esku hartze ugarien probak aurkeztu. Honela, komisiok iraun zuen bitartean, Frantzia eta Ingalaterrak gainerako hiru potentzia sinatzaileen etengabeko paktuaren urraketa onartu zuten ez ikusiarena eginez.

Baina paktuaren urraketa ez zen soilik Italia eta Alemaniaren aldetik egin, Frantziak Mexiko bezalako hirugarren estatu batzuen izenak erabiliz gobernu errepublikarrari armak saltzen jarraitu baitzuen eta beti ere salmenta laguntzen. Hala ere, bide honetatik egindako arma salmentak ez ziren inoiz neurri handikoak izanen. Blum-en hasierako jarrera aldaketaren eta gainerako potentzien paktuaren urraketa onartzearen ondorioz, Sobietar Batasuna izanen zen gobernu legalari zuzendutako arma salmenta monopolizatutako zuen potentzia, eta honekin batera, alde errepublikarra ideologikoki baldintzatutako zuena.

Frantziaren jarrera aldaketa honen zergatiak ez daude oraindik ere oso garbi, baino pentsatzen da 1936ko udan Espainian zeuden ikuskariek Errepublikaren indarren ahultasunari buruz eta Francoren indarren aurrean luze irauteko izanen zuten zailtasunari buruz egin zituzten adierazpenek zerikusirik izanen zutela. Honen aurrean, ez zirudien oso abila laster menderatua izanen zena laguntzea. Garrantzia izanen zuen ere, lehendakariak gisako gerra zibil bat Frantzian lehertuko zenaren beldurra izateak, Frantziako oreka politikoa oso ahula baitzen.

Horrela, lehenik Alemania eta Italia, eta geroago Sobietar Batasunaren esku hartzearentzako bidea irekirik egonen zen.

Ondorioz, Espainiako gobernu errepublikarrak ofizialki ezingo zuen armarik bereganatu, Mexikotik ez bazen, legezko gobernu batentzako ia aurrekaririk gabeko egoera. AEBtako gobernuak ere Espainiari armarik ez saltzea erabaki zuen, erabakiarekin enbargu moral bati hasiera emanez. Baina, Ameriketatik, “Texano Oil Company” bezalako enpresa ezberdinen bidez, nazionalei kredituak bideratuko zitzaizkien. Beraz, legezko gobernuari armak eta laguntza ezberdina eskuratzeko geratzen zitzaion iturria Sobietar Batasuna izanen zen, eta iturri honekiko izanen zuen dependentziak, errepublikaren barne politika ideia sobietarrekin lerratzerara eraman zuen.

Sobietar Batasunari dagokionean, potentzia horrek gobernu errepublikarrak laguntza eskaerarik egin gabe ere jarri zuen martxan hau laguntzeko aparatua. Hasierako laguntza ez zuen modu ofizialean bideratu, bere ideologiaren ondorioz errepublika laguntzeko beharrea sentitzen bazen ere, nazioarteko egoerak eta gerra baten beldurak ez baitzion hau era publikoan aurrera eramatea ahalbidetzen. Honela, hasierako laguntza Comintern eta Profintern erakundeek bideratu zuten, janari, diru eta partidu komunista espainiarra bideratzeko zein borondatezko miliziak militarki prestatzeko jende bidalketez osatzen zena. Janaria, dirua, jende kualifikatua, osasungintzarako tresnak..., bidali bazituzten ere, arlo militarri zegokion laguntza falta zen, gobernu errepublikararentzat ezinbestekoa.

Aipaturiko bi erakunde hauek, Comintern-ek eta Profintern-ek, propaganda handia bideratu zuten Europa osoan, Espainiako gobernu errepublikarren borroka, antifaxista guzientzako lotzeko batez ere. Horrela, gobernu errepublikarra laguntzeko hainbat erakunde sortu zituzten, Paris eta Bruselan kokatu zituztenak, eta beste gauzen artean, nazioarteko brigadak antolatuko zituzten.

Altxamendu militarra hasi zen une beretik Sobietar Batasunak Comintern-a eta Profintern-a martxan jarri bazituen ere, potentzia horrek ez zuen une hartan Errepublika ofizialki lagundu, bi erakunde horiek instituzio mailan gobernu aparatutik bereiziak baitzeuden. Honela, gobernu errepublikarrak hainbeste behar zuen laguntza militarra Sobietar Batasunak ofizialki Errepublika laguntzea erabaki zuenean iritsi zen, abuztuaren amaieran.

Potentzia sobietarrak armen hornikuntzarako nazioarteko sare bat eratu zuen, errepublikarrei armak bidaliko zizkien, baina hauen fakturak, beste herrialde batzuen izenean eginen zituen, Txina edo Latinoamerikako herrialde ezberdinen izenean hain zuzen ere. Armez gain, taktika militarrean eta arma hauen ezagutzan jakintsuak ziren teknikari ezberdinak bidali zituen potentzia eslaviarrak. Sobietarren aldetiko laguntza honi Espainiako errepublikak errusiar enbaxadorearen onartzearekin erantzun zion. Modu honetara, Errepublika 1937ra arte teknikoki hobe hornitua egonen zen, Alemaniak nazionalei bidalitako ekipaia berriaren bitartez oreka bere horretan mantenduko zelarik. Militarki eta politikoki prestatua zegoen jendearen bidaltzearekin,

Sobietar Batasunak ideologikoki eragin handia izanen zuen gobernu errepublikarrean, batez ere partidu komunistan. Ondorioz, gertaera hau nazioartean altxatuen diskurtsoa babesteko erabiliko zen, hau da, nazionalak, komunismoaren aurkako gurutzada abiatu izatearena.

Uztailaren 17ko altxamenduaren aurrean, beraz, potentzia ezberdinek erantzun oso desberdinak emanen zituzten. Errejimen autoritarioak bizi zituzten potentziak izanen ziren zuzenean parte hartuko zuten lehenak, Alemania, Italia eta Sobietar Batasuna, hain zuzen ere. Ekiten lehena Alemania izanen zen, honi Italiak jarraituko zion, biak ere Francoren alde. Hirugarrenik, ideologikoki beste muturrean kokatzen zen Sobietar Batasunak, Errepublikaren mesedetan parte hartuko zuen. Frantziak, bizituko gorabeheren ondoren, Ingalaterrarekin batean “ez esku hartzearen” politika jarraituko zuen, baina askotan esan denez, Hitler eta Mussoliniren parte hartzearen inguruan begi bat itxiaz, gobernu ingelesak Francoren mugimendua armak bidali balizkio bezala lagundu zuen. Europa mailako gerra bat ekidin nahian, baina denek ere beren interesak defendatuz, ezkutuko mundu gerra bat burutu zutela erraten ahal da.

Espainiako Gerra Zibilean nazioarteko potentziek hartu zituzten erabaki eta jokabideek, II. Mundu Gerrako bandoak marraztu zituen, eta ez hau bakarrik. Italia eta Alemaniaren kasuan, proba militar ezberdinak egin zituzten, gero II. Mundu Gerran aplikatuko zirenak, populazio zibilaren bonbardatzea, edo aire-lurreko elkarlana teknika militar berri gisa.

2. Italiarrak Nazioarteko Brigadetan Euskal Herrian

Errepublikaren aldeak ere, altxatuenak bezala, laguntza materiala jasotzeaz gain, borondatezko jendearen laguntza jaso zuen. Espainia errepublikarrekin bat egin zuten borondatezkoek arrazoi ideologiko eta politikoei erantzuten zieten bere gehienean. Haien ezaugarriak anitzak izanik, denek faxismoaren aurkako borrokan bat egiten zuten. Errepublikaren aldera hurbildu zen jendearen artean demokrazia aleak, komunistak, anarkistak eta beste korrante ideologiko ezberdinei erantzuten zien jendea aurkitzen zen. Horrela, borondatezkoekin, altxamenduarekin bat egin ez zuten militarrekin, eta errepublikaren aldean geratutako gazteekin, “Espainiako Ejertzito Herrikoia” osatu zen. Europako eta Europaz kanpoko herrialdeetatik (batez ere AEB eta Hego zein Ertamerikako herrialde desberdinetatik) etorritako borondatezkoak, batailoi eta brigadetan antolatu ziren, normalean bataloi mailan herrialdeka banatzen zirelarik. Ideologiaren arabeko banaketa bat ere egon zen, Madril-en komunistak ziren nagusi, anarkistak berriz Aragoi eta Katalunian.

Italiako borondatezkoak Espainiara iristen lehendabizikoetakoak izan ziren, Aragoien berehala lehenengo unitatea sortu zutelarik Carlo Rosseliren agindupean. Zutabe honek anarkista espainiarrekin batera borrokatu zuen Huesca aldean. Frantzian erbesteraturik zeuden faxismoaren aurkari italiarrek, Randolpho Pacciardi buru izanen zuen “Garibaldi” izeneko batailoia eratzeari ekin zioten. Batailoi honek Jarama eta Guadalajarako borroketan parte hartu zuen, geroago Huescan, Aragoi eta Extremaduran. Brigadistak arrazoi ideologikoengatik joan

ziren Espainiako Gerra Zibilean Errepublikaren aldean borrokatzera, eta beren ideologiarekin bat zetozen tokietara jo zuten borrokara. Honela, jeltzaleen *Euzko Gudarostearen* borroka antifaxista ez, baizik eta autonomiaren aldekoa izanik, borondatzeko brigadistek ez zuten begirune handirik izanen Euskal Herrian gertatzen ari ziren gatazkekin eta beste tokietara jo zuten borrokara.

Hala ere, nazioarteko brigadistek, eta hauen artean italiarrek, Euskal Herrian ere borrokatu zuten errerepublikaren aldean. Hauen parte hartzea garrantzizkoa izanen zen Irunen aldeko defentsan, abuztuaren bukaera aldera hasiko zena Jose Soltxaga jeneralaren eta Alfontso Beorlegi koronelaren adindupean abiatutako erasoari erantzunez. Irunen defentsan anarkista zein komunista euskaldun nahiz katalanekin batera nazioarteko milizianoz osatutako talde batek parte hartu zuen, alemaniarrez, frantziarrez, poloniarrez, juduez, besarabiarrez eta italiarrez osatutakoa, eta azken hauen aldetik Moises Lipis, Tommaso Ciappelloni eta Francis Palka nahiz Remigio Mamovich buruzagiak ditugu. Taldearen izena *Milizie Popolari di Irun* izan zen.

Nazionalen helburua Irun hartzea izan zen, honela, Frantziarekiko komunikazio bidea itxiko zelarik eta iparraldeko frontea isolaturik geratuko zelarik. Hau horrela izanen zen, ze puntu honetatik sartzen ziren iparraldeko frontearen babeserako Bartzelonatik Frantzia barrena bidaltzen ziren arma apurrak. Mussolinik altxatuei bidalitako hegazkinez sarritan bonbardatu zuten Irungo hiria. Bi bandoen arteko arma desberdintasuna handia bazen ere, Irunen defentsan zeuden borrokalariak gogor erantzuten zuten, nazionalen aurrerakada oso zaila eta geldoa izanen zelarik. Honela, mugako hiriaren aldeko defentsan aritu ziren brigadistek, azken uneraino borrokatu zuten, soilik muniziorik gabe geratu zirenean gurutzatu zutelarik muga. Irunen erorketaren ondoren, borrokak Behobia eta Hendaiako nazioarteko zubira luzatu ziren, bertan italiar brigadista batzuek bizia galduko zutelarik populazio zibilaren mugaz bertzalderako igarotzea laguntzen zuten bitartean edo borrokan zeuden bitartean.

Errepublikaren gobernu eta nazioarteko brigadak, euskaldunen borrokarekiko oso mesfidatiak ziren, autonomiaren defentsa hutsa bezala ikusten baitzuten. Baina Irunen defentsa, estrategikoki oso garrantzitsua izateaz gain, autonomia aurreko garaian gertatuko zen, eta bertako Juntak, ezkerreko indarrez osatuak zeuden bere gehienean, Donostia errepublikarrean bezala, ezkerreko indarrek presentzia eta garrantzi handia izan baitzuten. Iruneko nazioarteko brigadisten parte hartze garrantzitsuaren ondoren, beste toki batzuetan ere parte hartuko zuten. Horrela gertatu zen Bizkaiko probintziaren aurkako operazioan altxatuek Jata mendia hartu ondoren, Nino Nannetti, Bolognako antifaxista batek gidaturiko brigadak Jata mendia berriz hartzeko asmoz eraso zuenean. Hala ere, indar nazionalek Nannettiren erasoaldia laster menderatu eta Burdinezko Gerrikoaren atzean babestera behartu zuten.

Italiar brigadisten parte hartzea euskal eremu ezberdinetan ez zen oso handia izan, txikiagoa gainerako lurralde errepublikarretan eman zen parte hartzea kontutan hartzen badugu. Baina hau, jaurlaritzaren aldetiko mesfidantzarekin lotu behar dugu, autonomiaren aldeko

borroka soila egiten zelakoan, Euskal Herrira laguntza handia bidaltzea indarrak galtzea gisa ikusten zelarik. Honi, nazioarteko brigadisten ezaugarri ideologikoak gehitu behar dizkiogu, *Euzkadin* aurrera eramaten zen borroka modu eta ideologiarekin bat ez zetorrena bere gehienez.

3. Italia faxistaren parte hartzea Euskal Herrian

Italia faxistak era askotan parte hartuko zuen altxatuen aldean, arma bidalketan, gorputz ezberdinekin gerra guneetan, ... Atal honetan, parte hartze militarren adibide bat eta diplomatikoaren beste bat aipatuko ditut: lehenari dagokionean, Bizkaiaren aurkako kanpainan izan zuten parte hartzea, eta bigarrenari dagokionean berriz, errepublikaren alde borrokatzen ziren euskaldunen errendizioa lortze arren egindako lanak.

Italiak bidalitako arma zein militar eta borondatezkoak erresistentzia handiko lekuak erasotzeko edo garrantzi estrategikoa zuten lekuen aurka aritzeko erabili ziren. Horrela, Bizkaiaren aurkako operazioaren aurretik (non garrantzi handia izan zuten), Irun eta Donostiaren okupazioan aritu ziren. Horrela, 1936ko abuztuaren hasieran Italiako gobernuak nazionaleri bidalitako bost tankeak eta hauek erabiltzeko beharrezkoa zen jendea, Gipuzkoako frontera bidali ziren, irailaren 13an Donostiaren okupazioan parte hartu zutelarik Molaren tropekin batera.

3.1. Bizkaiaren aurkako kanpaina

Emilio Mola jeneralak 1937ko martxoaren amaieran hasi zuen erasoaren aurreko hilabeteetan berrogei mila gizon bildu zituen euskal probintziaren aurka jotzeko, honako mehatxuaren ondoren: “Iparraldeko gerra berehala bukatzea erabaki dut: erahilketez zikindurik ez dagoenak eta armak uzten dituenak, bizia eta jabetza gordeko ditu. Baina errendizioa berehalakoa ez bada, Bizkaia osoa deuseztatuko dut industria belikotik hasita. Hau egiteko tresnak ditut”.

Gertaerak ez ziren ordea Molak nahi bezala gertatu, eta ez zen berehalako garaipenik izan. Altxatuen aurrerapena geldoa izatearen arrazoiak honakoak izanzen ziren: probintzia menditsuan zeuden altuera handiak, euri eta lainoak; komunikabide txarrak; euskal borrokalarien gogortasuna, altxatuek konkistatutako lur puska bakoitza gogor ordaindu behar izan zutelarik.

Martxoaren 30an iparraldeko frontea Bizkaiko golkotik hegoaldera zihoan, Ondarroako zonaldeetik Legutiora, handik mendebaldera eta hego-mendebaldera luzatzen zelarik. Errepublikaren armadaren burua Francisco Llano de la Encomienda zen eta gaizki armaturiko 45.000 gizon, artilleriako 20 bat pieza, dozena bat tanke eta 30 bat hegazkin zuzentzen zituen.

Valentziako gobernu mesfidatia zen Euzko Jaurlaritzarekiko harremanetan. Atzerriko potentziek ezarritako blokeoak, bestetik armak, itsasotik iristea eragozten zuen, penintsula barruan iparraldea isolaturik aurkitzen zen eta aire bidezko garraioa oso zaila egiten zuten distantzia luzeak, nazionalak kontrolaturiko lur eremuaren gainera egin beharrekoa, eta Bizkaia menditsuan zeuden aireportu eskasiak. Ondorioz, ez zuen beste borroka fronteetara bidalitako arma hornidurarik egingo. Errepublikaren gobernuarentzat iparraldeko frontea erdialdekoa baino garrantzi gutxiagokoa zen, eta honi, komunistek Agirre mespretxatzen zutela, sozialistek autonomiaren esperimendua ez zutela begi onez ikusten eta errepublikarrek berek, euskaldunek autonomia lortu ondoren, bakarrik konpondu behar zutelako ustea gehitu behar zaio. Horrela, armen hornikuntza ez zen behar adinakoa izanen.

Euskal indarren hornidura, hala ere, itsasoz iristen zen, “ez esku hartzearen” akordioek hornidura hau errazten zutela esan daitekeelarik. Akordioek kostatik hiru milatara bakarrik mugatzen zuten erasotzea edo itsasontziak gelditzea zilegi zen itsaso-eremua, Espainiako uretatik kanpo egindako ekintza oro piratakeria gisa izendatzen zelarik. Kantauri itsasoa kontrolatzeko ardura zuen potentzia ingelesak, gerra ekintzak saihesteko nazioarteko urak zaintzen zituen, baina euskaldunentzako hornidurak eramaten zituzten itsasontziak lasaitasunez egoten ziren nazioarteko uretan flota ingelesak babesturik, kostara iristeko eta beren armak lurreratzeko egin beharreko 3 milletako distantzia burutzeko prest.

Bilbo Burdinezko Gerriko bezala izendatutako defentsa sistema batek babesten zuen. Defentsa sistema honen eraikuntzan Bilboko industrietako 15.000 langilek parte hartu zuten, eta kalkulatu ezinezko zementu eta burdinezko kopuruak erabili ziren. Gerrikoa hiru trintxera lerroz, artilleriaz, metralaidoraz eta morteroz armatutako zementuzko plaza txikiez, bunkerrez, lurrazpiko gordelekuz eta trintxera lerroak elkartzen zituen pasabidez osatzen zen. Guztia, bestelako instalazio militarrez, galeriez, deposituz... horniturik zegoen. Babeserako elementu oso ona izan arren, toki batzuetan gerrikoa hiritik oso gertu geratzen zen.

Nazionalak alde militarretik nagusitasun handiagoarekin jokaten zuten, bai artilleria, tanke zein hegazkinei zegokienez. Nafarroako 61. dibisioa, Jose Soltxaga Zalak gidatua, lau brigadetan antolatzen zen, Bergara eta Legutiano artean kokatzen zirenak, Araba eta Bizkaiaren arteko mugan. Batailaren aitzindaria, Matxitxako lurmuturraren aurrean “Canarias” itsasontzi nazionalaren eta arrantza euskaldun batzuen artean burututako itsas aurkaketa izanen zen, nazionalak garaituko zutena. Molak, Bizkaiaren aurkako eraso bi zatitan antolatu zuen: lehenengo fasearekin Burdinezko Gerrikora iritsiko ziren, bigarreanean berriz, gerrikoaren eraso eta Bilboren hartzea burutuko ziren.

Iparaldeko probintzien aurkako erasoak martxoaren 31-an hasi ziren eta bertan, Nafarroako brigadetz gain, zerikusi garrantzitsua izan zuten Gezi Beltzak (Frecce nere) eta Martxoak XXIII dibisioak osatzen zuten Italia faxistaren ekarpena. Gezi Beltzak izeneko gorputz italiarra, 1937ko urtarrilaren 18an osatu zen Badajozen brigada gisa. Beraien leloak

“irabazteko eraso” zioen. Errepublikaren aurka beste lurralde batzuetan borrokatu ondoren, Brigadak Martxoak XXIII-rekin batera Bilboko ofentsiban parte hartzeko agindua jaso zuen martxoaren 18an. Bi gorputz hauek Roatta jeneralaren agindupean zeuden eta legioko artilleriaren eta italiar-alemaniar abiazioaren laguntza jasotzen zuten. Lehenengo fasearen lehenengo zatia, apirilaren 8an eman zen bukatutzat, Legutio-Aretxabaleta frontea igaro eta Otxandio-Olaeta ingurura hurbildu ostean. Une horretan ez zuten italiar lurreko indar ugari parte hartu, baina aireko indarrez gain, artilleriako hiru taldek Nafarroako brigaden erasoei laguntza eman zieten.

Lehenengo fasearen bigarren zatia, geldialdi luze baten ondoren abiatu zen. Meteorologia egoera txarren eraginez, bigarren zatia apirilaren 22an hasi zen, Nafarroako I., II. eta IV. Brigadek, Elorrioren aurkako ofentsiba bati hasiera eman ziotenean. Bigarren zati honetan italiar lurreko indarrek parte hartze handia izanen zuten, Nafarroako VI. Brigadaz gain Gezi Beltzek eta Martxoak XXIII-k parte hartu zutelarik. Fase hau maiatzaren bukaeran amaitu zen, nazionalak itsasotik Amorebietarainoko zatia eta Dima-Amorebieta lerroa konkistatu zituztenean, Berunezko Gerritik oso hurbil. Italiar indarrok zuzentzeko, italiar intendentzia delegazio bat kokatu zen Gasteizen. Nafarroako Brigadek lehenengo operazioak euripean egin zituzten, poliki aurreratuz eguraldi txarraren eta euskal errepublikarren erresistentzia gogorrenegatik. Eremu menditsuak, euskaldunek hauetaz zuten ezagutza eta erresistentzia gogorak, sarritan errepublikarrak kontraerasora igarotzea ahalbideratu zuen.

Italiar indarrak hasierako momentuetan erreserbako indar bezala jokatu bazuten ere, ez zuten denbora luzea iraungo erasoetan parte hartu gabe, 1937ko apirilaren 5ean Gezi Beltzak erasora igaro zirelarik. Eibar-Markina sektorean nazionalen eraso apirilaren 26an abiatu zen. 27an II. Brigadak Berriatua hartu zuen, 28an berriz Lekeitio. Apirilaren 27ra arteko operazioak, nahiko geldoak izan ziren, baino egun horretan, brigada italiarrak Kolamendi eraso zuen, Gernikarako bidetik hurbil. Indar italiarrek artilleriaz eta hegazkinez eraso zituzten euskal indarrak, gau horretan bertan haitzak inguratu eta hurrengo egunean, Amoroto ezker aldean utzi ondoren Lekeition sartu ziren.

Brigadaren burua Sandro Piazzoni koronelak Lekeition ezarri zuen bere agintaritzan, gau honetan bertan euskaldunak Arteaga eta Gernika aldera erretiratu ziren, legioko artilleria indarrak atzetik erasotzen zituztela. Apirilaren 30an, 12:30tan, Bartolome Barba komandante espaiarrak zuzenduriko legionario talde batek Gernika hartu zuen. Hiria, hilabete horretako 26an Condor hegazkin alemaniarrek eta Italiako Savoia hegazkinek buruturiko eraso azkar eta bortitz baten ondoren errausturik gelditu zen, ekintza honek nazioarteko oihartzun handia izan zuelarik, eusko gudarien borroka oso ezagun eginez.

Handik gutxira, Gezi Beltzen 3. errejimentua iritsi zen Gernikara IV. Brigadako nafarrekin eta italiar kazetari talde batekin batera. Gernikara iritsitako bi indarrak, nazionalak eta italiarrak, Burdinezko Gerritik bereizten zituzten mendiak erasotzeko bitan banatu ziren.

Nafarrek Bizkargi eta Urkulu mendien sektoreak erasotzen jarraitu zuten, Gezi Beltzak berriz, itsaso aldera zuzendu ziren, batailoi batekin Bermeora iritsiz.

Legioaren aurrerakada oso azkarra izan zen, eta ondorioz, egindako akatsek euskal indarrek ahalbideratu zituzten italiarrak erasotzeko. Bermeo, gainerako legio indarretatik isolaturik geratuko zen. Bermeon isolaturik geratu ziren legio indarren egoera dramatikoa bihurtu zen, euskaldunen nagusigoa agerian baitzegoen mendietatik erasotzen zutelarik, eta herri barrenera laguntza bidaltzea ezinezkoa baitzen momentuz. Maiatzaren 2an borrokek gogor jarraitu zuten, legionarioak etsaiaren eraso guztiak erantzuteko gai izan zirelarik. Hurrengo egunean legio indarrentzako laguntza iritsi zen, Martxoak XXIII –ko IV. taldea eta indar italiarrak erasora igaro ziren. Bi aldeek galera handiak jazo zituzten, Legioaren batailoiko gizonen % 50a borrokarako ezindua geratu zelarik. Nazionalek, italiar indarren ausardia goraiatu zuten, heroitasuna, Bermeon isolaturik eta euskal indarrez inguraturik egun batzuk iraun ondoren, borroka irabazi baitzuten. Bermeoko borrokek ere, oihartzun zabala izan zuten nazioarteko egunkarietan.

Bilboko kanpainan zehar, italiar Legioaren abiazioa zein Condor alemana, iparraldeko zeruetan nagusitu ziren. Logroño, Gasteiz eta Soriatik abiatzen ziren bonbardari italiar eta alemanak, etsaia gogor erasotuz, eusko gudariak airez gogor erasoaz lurretiko borrokek hasi aurretik. Alemaniar-italiar hegazkinek ordea, ez zituzten soilik Euzko Gudaroztearen posizio ezberdinak erasotu, eremuan kokatzen ziren herri asko bonbardatu zituztelarik. Horrela, beste askoren artean, italiar abiazioak Durango bonbardatu zuen martxoaren 31an, baino horietariko ezagunena Gernikaren suntsipena izan da, alemaniar Condor hegazkinek burutua, italiar hegazkin gutxi batzuen laguntzarekin. Bestalde, errepublikako hegazkinen aurkako erasoak ere burutu zituzten, egun gutxitan 30 hegazkin errepublikar kolpatu zituztelarik.

Aurrerapenak geldoa izaten jarraitu zuen. Nafarroako brigadek Bermeo hegoaldeko mendiak eraso zituzten Sollube hartu, Gezi Beltzek berriz, kostaldetik egin zuten aurrera. III. errejimenduak Tollu mendia hartu zuen eta Jata mendiaren azpian kokatu zen. Momentu berean, Martxoak XXIII-ak, V. errejimentuarekin Gondramendi eta IV.-arekin Elardi eraso zituen. Babesleku ona probestuaz, euskaldunek gogor defendatu zituzten gunek hauek, baina legio indarrek hegazkinez eta artilleriarekin gogor eraso zituzten eta maiatzaren 19an konkistatu egin zituzten inguru horiek.

Egun horretan bertan Gezi Beltzek eta Martxoan XXIII-ak, Tollu menditik Jatara iritsi ziren tanke eta hegazkinen babespean. Jataren aurkako eraso bereziki gogorra izan zen, mendiaren gailurra gogor bonbardatua izan zelarik. Mendia hurrengo egunean hartzea prestatu bazegoen ere, legionari italiarrek egun bereko azken argi orduak probestuaz erasoari ekin zioten. Eraso honetan ere, bi aldeek galera eta hildako ugari pairatu zituzten. Gaez, Gezi Beltzen III. errejimendua gailurrera iritsi zen, bertatik Burdinezko Gerrikoa eta Bilboko itsas-adarra ikusgai zirelarik.

Erasoak geldialdi bat izan zuen, eta indar italiar-espainiarrak eraso berri baterako prestatu ziren. Une hartan Mola jenerala, iparraldeko ejertzitoaren komandantea eta uztailak 18ko altxamenduaren bultzatzaile nagusia, hil zen hegazkin istripu batean. Bere ordezkoa Fidel Davila jenerala izan zen. Legionario italiarrek beren posizioak egonkortzen zituzten bitartean, euskaldunek beste erasoaldi bati ekin zioten, Nino Nannetti, Bolognako antifaxista batek gidaturiko brigadak Jata mendia eraso zuenean. Gezi Beltzek Nannettiren erasoaldia laster menderatu eta Burdinezko Gerrikoaren atzean babestera behartu zuten.

Nazionalen aurrerakada hauen ondoren, Bizkaiaren aurkako operazioaren bigarren fasea hasi zen. Hau hiru denboretan egingen zen: Burdinezko Gerrikoaren aurkako eraso eta Gerrikoaren erorketa; barrura sartzea; hiriaren konkista. Aipatu, Gerrikoaren aurkako erasoan oso baliogarria izanen zirela Alejandro Goikoetxea, gerrikoaren eraikuntzan parte hartu zuen desertore euskaldunak emandako informazio eta planoak.

Geldialdiko labur baten ondoren, ekainaren 11an abiatu zen bigarren fasea. VI., IV. eta I.go Nafarroako brigadek, Urkulu- Fika aldera abiatu ziren, erresistentzia handirik aurkitu gabe egin zutelarik aurrera eta bidean preso ugari hartu zituzten. Posizio hau igaro ondoren, Nafarroako brigadak Gerrikoaren aurreko mendietan kokatu ziren. Horrela, hurrengo egunean, ekainaren 12an, bigarren fasearen bigarren zatiri hasiera eman zitzaion, artilleria eta abiazioaren txandaketaren bidez egin beharreko erasoaren prestakuntzarekin hasiz. Hurrengo egunean, artilleriak lurreko eraso gogorrei ekin zien eta infanteria Gerrikora hurbildu zen, han ez zuelarik erresistentzia handirik topatuko. Horrela, V. brigadak 14:30etan Gerriko barrura sartu ahal izanen zuen Bilboko ipar-ekialdetik. Gerrikoaren kanpoaldean, Gezi Beltzek Mungia erasotu zuten, abiazioak etsaien mugimendu handiak zeuden Santa Maria Lezamakoa-Bilbo lotzen zituen errepidea bonbardatzen zuen bitartean. Egun horretan zehar, brigadek Gerrikoaren okupazioarekin jarraitu zuten, ipar-mendebaldera abiatuz.

Ekainaren 13an hirugarren azken eraso zen. Egun honetan brigadek Larrabetzu erasotu zuten, ihesean zihoazen bi batailoi etsai desegin zituzten, Berraga mendia hartu zuten eta Derio eta Mantuliz aldera bideratu ziren; 15ean San Roke, Santo Domingo eta Galdakao eskuratu zituzten, eta I. Brigadak Ibaizabal gurutzatzea lortu zuen; hurrengo egunean Nafarroako I. Brigadak Malmasin mendia eta Arrigorriaga hartu zituzten, Bilboko hiria inguratuaz; IV.ak Dimako inguruetatik aurrera egin eta Larreda eta Artxanda hartu zituen; 17-an V. Brigadak Artxandan erasotu zituen euskaldunak, hauek Urduña, Saratxo eta Baranbiotik alde egin zutelarik. Ekainaren 18an, VI. Brigadak Lutxana, San Bernabe eta Landatxuko altuerak bereganatu zituen; I.ak Arnotegi eta Arraiz, Bilboren hegoaldean; gainerako brigadek aurreko eguneko posizioak mantendu zituzten.

Ekainaren 19an Artxanda mendian borrokan zeuden euskaldunak errenditu egin ziren, Bilboren defentsan geratzen zen borroka puntu bakarra desagertu zelarik. Egun horretan bertan, 15:00ak aldera, Nafarroako I. eta II. Brigadak hirian sartu ziren tanke eta auto blindatu

nazionalen atzetik. Bertan barrikada ugari aurkitu zuten, eta hiriko zubi guztiak deuseztaturik, baino ez zegoen erresistentziarik. Zazpi batailoi euskaldun errenditu ziren bertan eta gatibu hartu zituzten, populazioaren gehiengoak aurreko egunetan Santander aldera ihes egin zuelarik, borrokan jarraitzeko asmoa zuten unitate militarrek bezala.

Bizkaiaren aurkako operazioaren bigarren zati honetan ere, artilleria eta abiazio legionarioak espainiar zein italiar lurreko indarrak laguntzen jarraitu zuten. Lurreko indarren artean, Gezi Beltzek parte hartu zuten bakarrik, Martxoak XXIII dibisioak ekainaren 15ean Bizkaia utzi baitzuen. Gezi Beltzak ekainaren 12an hasi zuten berriz ere beren borroka, Mungiaren aurkako erasoan. Hurrengo egunean herrira sartzea lortu zuten, baino herria deuseztatua aurkitu zuten. Ekainaren 14an brigadak Plentzia bereganatu zuen eta Butroiko gatzelura iritsi ziren, Gatika okupatuz. Hurrengo egunean Urdulizera iritsi ziren Gezi Beltzak, 16an Areetaraera, Bilboko portuaren sarreraraino. Gezi Beltzek Bilbo iparraldeko mendietan Nafarroako brigaden eta *Euzko Gudarostearen* arteko borroketan lagundu nahi izan zuten, baina nazionalen aldetik ezezkoa jaso zuten, Bilbora Espainiako indarrek sartu behar baitzuten bakarrik. Ekainaren 19an Roatta eta Piazzoni jeneralak Bilbon sartu ziren beste zenbait ofizialekin batera.

Ekainaren 21ean, brigadak Portugaleteren parean gurutzatu zuen ibaia eta hurrengo egunetan unitate euskaldunak jarraitu zituzten Santander alderako ihesean. Ekainaren 28an Nafarroako IV. Brigada ordezkatu zuen borroka lekuan, uztailaren 1ean, Santanderrera probintziaren mugara iritsiz. Uztailaren 2an Gezi Beltzek Somorrostro okupatu zuten eta 3an Ontón. Inguru hauetan gelditu ziren Gezi Beltzak defentsa antolatzen, abuztuaren erdialdean Santanderreko ofentsibaren erasoak hasi artean.

Bizkaiako ofentsiban italiar indarrek izandako galerak honakoak izan ziren: Gezi Beltzek 50 hildako, beraien artean 4 ofizial, 232 zauritu eta 7 desagertu; Martxoak XXIII agrupazioak 52 hildako eta 200 zauritu inguru. Bilbo erori ondoren, iparraldeko kanpainak bidean erresistentzia handirik topatu gabe jarraitu zuen abuztuaren 26an Santander hartu arte. Asturias konkistatzeko borrokek gogorragoak izan ziren.

3.2. Euskal errendiziorako hartu-emanak

Iparraldeko frontea erori aurretik, aurreko orrietan azaldu gugun eraso gertatu aurretik, Gerra Zibilaren joera ikusirik eta luzerako izan zenaren itxura harturik, Erromako gobernu faxistak gerra lehen bait lehen bukatzeko ahaleginak egin zituen, zurrumbilo horietatik kanpo ikusi nahi baitzuen bere burua. Euskaldunak errenditzeko konbentziturik gero bukaera errazagoa eta hurbilagoa izan zitekeela pentsatu zuen Italiako gobernuak. Horretarako euskaldunei akordio batera iristea proposatu zien eta armak utzitako momentutik akordioa Erromak errespetatuko

zuelako berme italiarra eskaini zien. Nahiz eta italiarrek ez zuten euskaldunekiko atxikimendu eta hauek laguntzeko gogo berezirik, abertzaleek eskaintzen zituzten egoerak (Errepublikaren alde agertutako gainerako tokietatik bereizten zituen hainbeste ezaugarri, hauetako batzuk Errepublikaren izatearekin kontraerranetan zeudenak), gerraren amaiera azkartzeko aukera bat ikusi zuten: euskaldunek gerratik erretiratzea erabakiz gero, iparraldeko fronte osoaren erorketa ekar zezakeelakoan, borrokaren amaiera azkartuz.

1936ko abenduaren amaiera aldera, Mussolinik Francori euskaldunekin negoziatzeko aukera kontutan har zezan eskatu zion, lehenengo saiakera honek ez zuelarik inolako ondoriorik izan. Hurrengo urteko martxoaren bigarren astean ordea, Donostiako italiar kontsul Francesco Cavalletti markesak, euskaldunak Francoren aldetiko errepresioaren beldurragatik zeudela errepublikarrekin bat esan zuen, eta hauek errepresiorik izanen ez zenaren bermea jasoz gero, seguruenik armak uzteko prest egonen liratekeela. Martxoaren 21ean Isidro Gomá kardinala Cavallettirekin harremanetan jarri zen, Italiak bake negoziatu batera iristeko proposamena burutu zezan eskatuz. Roberto Canalupo, Espainia nazionalaren aurrean lehen enbaxadore italiarrak, aukera honen inguruko interesa agertu zuen, Francorekin hitz egin ondoren italiar gobernuari euskal errendizioaren bermatzaile izanen ote zen galdetuz. Erromarentzat proposamena oso interesgarria ez bazen ere, apirilaren 12an italiako kanpo ministroak, Ciano kondeak, euskaldunei italiar bermea eskaintzea onartu zuen.

Handik hilabete batera, Cavalletti euskaldunen aldetik negoziatzaile nagusia izanen zenarekin harremanetan jarri zen, Alberto Onaindia apaiz nazionalistarekin. Hau, Agirreren eta EAJren beste zenbait kide ezagunen lagun mina zen. Cavallettirekin izandako topaketa baten ondoren, Onaindiak eskaintzaren berri eman zion EAJren buru Doroteo Ziaurrizeri. Ziaurrizek begi onez ikusi zuen proposamena (garai horretarako Molaren indarrak Bizkaian barneraturik baitzeuden, baina Ziaurrizek Onaindia Agirrerekin hitz egitera joan zedin eskatu zuen. Agirrek ere italiar proposamenaren inguruko interesa adierazi zuen, baina Onaindiari erantzun ez oso argi bat eman zion, denbora hurbilerako inolako ekintzarik erakusten ez zuena. Euzkadiren lehendakaria ez zen, seguruenik, italiarrez fio, eta proposamena ez zuen inoiz gauza serio gisa aztertu, denbora irabazteko aitzakia gisa baizik. Hurrengo hilabetean Onaindia eta Cavallettiren arteko topaketak ugariak izan ziren, azken hori Bilbon euskaldunak italiar indarren aurrean errenditzearen onurez mintzatu zitzaizolarik, ordezkatzen zuen gobernuak errendizioaren hurrengo urteetan Euskal Herrian protektoratu moduko bat osatuko zuela esanez. Onaindiak Agirre honetaz guztiaz informatu zuen, baina azken honek erakutsitako interes faltak, errendizioa aurrera eramateko ideiak bere horretan utzi zituen.

Ekainaren 11an nazionalak Bilboren aurkako ofentsibari ekin zioten, eta garbi zegoen handik gutxira Burdinezko Gerrikoan sartuko zirela. Egoera horren aurrean, EAJren Bizkai Buru Batzarraren lehendakariak, Juan Ajuriagerrak, euskal tropek Bilbon azken momentura arte ordenua mantenduko zutela eta hauek zibilen babeserako italiar interbentzioa espero zutela

Cavalletiri helarazteko eskatu zion Onaindiari. Ekainaren 19ko goizaldean tropa nazionalak Bilbon sartu ziren inolako erresistentziarik topatu gabe. Buruzagi jeltzideek beren hitza bete zuten preso politikoak aurreko egunetan askatuz eta gainerakoak nazionalen eskuetan utziz, eta hiri barruko eraikuntzen suntsitzea ekidinez. Errepresalia eta iskanbilarik ez eragiteko, Bilbora tropa gutxi sar zitezten agindu zuten, eta zibilen atxiloteta gutxi batzuk burutu ziren. Buruzagi abertzale guztiek beren tropekin ihesari eman zioten aurreko egunean, nahiz eta batzuk Frantzira ihes egin. Esan dezakegu Francoren moderazioa Mussoliniren esku hartzeari zor zaiola, Bilboren hartzea baina denbora bat lehenago Mussolinik euskaldunak oraindik nazionalen lerroetara bideratu zitezkeela esan baitzion Francori, hiriaren hartzea gertatu ondoren, italiar diktadoreak Francori telegrafo bidez bidalitako mezu batean, moderaziorako gonbita egin ziolarik.

Bilboren hartzeak, ez zuen iparraldeko frontearen erorketa ekarri, italiarrek pentsatu bezala, Santander eta Asturias errepublikarren eskuetan baitzeuden oraindik. Cavallettik, oraindik ere, bere negoziazio asmoekin jarraitu zuen: ekainaren 21ean Onaindiarengana jo zuen, eta berriro ere euskal tropei italiarren aurrean errenditzea komeni zitzaizela errepikatu zion. Hau gertatuz gero, Italiak euskal populazioa Santanderretik ebakutzen lagundu eta euskal buruzagien ihesa onartzeko aukera landuko zuen.

Ekainaren 25eko gauerdian, Ajuriagerrak gidatutako delegazio bat Borondatezko Lurreko Tropa (CTV) italiarren koronel Camillo De Carlo-rekin elkartu zen Algortako portuan. De Carlok, euskal tropek italiarren aurreko errendizioa aukeratuz gero, populazio zibilaren, soldaduen, zaurituen eta beren lerroetan borrokatu zuten Ejertzito espainiarreko ofizialen bizia errespetatuko zutela agindu zion euskal delegazioari. Buruzagi politikoen babesaren inguruko akordio batera iristea ere posible ikusten zuten italiarrek. De Carlok erantzun azkar baten beharra aipatu zuen, Santanderren aurkako ofentsiba berri bat edozein unetan hasi baitzitezkeen, eta akordioa, hau gertatu aurretik burutzea ezinbestekoa baitzen.

Ekainaren bukaeran, Ajuriagerra Agirrerekin ados jarri ondoren, Onaindiak Erromara bidaiara egin zuen, euskal gatazkaren eta gerran parte hartzearen arazoien berri emateko helburuarekin. kontaktu hauen ondorioz, euskaldunek maiz aipatu zuten italiarren borondate ona, baino ez zuten honen ordez ezer eskaini, eta italiarrak negoziaketa hauetan gerraren bukaera azkartzeko ari ziren. Honela, jeltzaleek italiarren laguntza eskuratu nahi bazuten, zerbait zehatza eskaini beharko zieten. Uztailaren 6an Onaindia Erromara iritsi zenean, Cianorengana zuzendua izan zen. Italiar kanpo gaietarako ministroak, beren interesa gerraren amaiera azkar batera iristea zela azaldu zion lehen unetik, ez ordea euskal arazoari irtenbide bat aurkitzea. Hala ere, Onaindiak Mussoliniren esku hartze humanitario baten inguruan egindako eskariaren aurrean Ciano interesaturik agertu zen, honek euskaldunen berehalako errendizioa ekar dezakeelakoan. Egun horretan bertan, Mussolinik telegrama bat bidali zion Francori, populazio zibilaren aurkako errepresiorik ez burutzeko eta euskal presoak italiarren eskuetan

uzteko eskaera eginez. Italiar diktadoreak, euskaldunen errendizioak iparraldeko fronte osoaren erorketa azkarra ekarriko zuela sostengatzen jarraitzen zuen, honek, nazioarteko eszenatoki politikoan nahiz mundu mailako iritzi publiko katolikoan ondorio onak ekarriko lizkiokeelarik.

Azkenerako, Francok uztailaren 8an onartu zuen Mussoliniren programa, tropa abertzaleen errendizioak iparraldeko frontearen erorketa ekarriko zuenaren aurrean zalantzak agertu bazituen ere. Francoren erantzunaren ondoren, Onaindiak bere eginkizuna bukatutzat eman zuen, hortik aurrerako elkarrizketak Italiara joan beharrik gabe egin ahalko zirelarik. Onaindiaren itzuleraren ondoren, errendizioa nola eta noiz burutuko zen erabakitzeke solasaldiak hasi ziren Donibane Lohitzunen. Momentu honetarako, italiarrek elementu politiko eta diplomatikoak konpondurik zeudela eta falta zen bakarra akordio tekniko-militarra zela uste zuten, elkarrizketetan parte hartu zuen Cavalletti, De Carlo, Umberto Beer eta Mario Roatta agintari militarrek ordezkatu zuten. Ia hilabete batez ez zen akordioaren inguruan aurrera pausorik eman, errepublikarrek azken aldi burututako garaipenak, Agirre eta gudari euskaldunak borrokarako gogo berri batzitu, errendizioa ekidin zezaketelako esperantzak areagotuz.

Uztailaren bukaerarako, italiarrek Agirrerekin topaketa bat egitea proposatu zuten, lehendakariak ez zuelarik honetarako inolako asmorik agertu. Gainera, italiarrek Santanderrera populazio zibila ebakutzeko itsasontzien bidalketarako bi aldeek onarturiko arauak, euskaldunen aldetik sarri bortxatuak izan ziren. Gertaera hauek eta negoziazioen erritmo lasaiak, alde italiarra euskaldunak denbora irabaztearren ari zirela pentsatzera eraman zuen. Gainera, nazionalen aldetiko ofentsiba birbideratzeko prestaketak ugaritu zirelarik, buruzagi militar italiarrek negoziaketan ardurak Cavallettiren eskuetan utzi zuten berriro ere.

Santanderren hartzea helburu zuen iparraldeko bigarren ofentsiba, abuztuaren 14an hasi zen. Errepublikarren artean, eta batez ere Francok beren lurraldea hartu zuenetik borrokaren zentzua galdu zuten euskaldunen artean, morala oso baxua zen. Honela, abuztuaren 20an Ajuriagerrak gidaturiko delegazio euskaldun batek italiarren aurreko errendizioa onartu zuen, euskal borrokalarien biziaren errespetuaren eta euskal buruzagien herrialdetik ihes egiteko aukeraren trukean.

Italiarrek abuztuaren 24a jarri zuten errendizioa burutzeko aukerako azken egun gisa, errendizioa beranduago eginez gero, hitzartutako arauak baliogabe geratuko zirelarik. Aurreko egunean euskal borrokalarien zati handi bat, Santanderetik 45 kilometrotara dagoen Santoñako portu arrantzalera hurbiltzen hasi zen, errendizioa burutu beharreko tokira. Abuztuaren 24an euskaldunak borrokatu gabe erretiratu ziren. Hurrengo egunean, batailoi gutxi batzuk Gezi Beltzen aurrean errenditu ziren eta abuztuaren 26an, euskal ordezkari batzuek gainerako batailoien errendizioa negoziatzeko aurkeztu ziren. Eskutitz baten bidez, errendizioa baldintza gabekoa izanen zela adierazi zitzaion, baina italiarren aldetik tratu zuzena jasoko zutela. Hurrengo

egunean Borondatezko Lurreko Tropa italiarrek Santoña hartu zuten, eta bertan 11 euskal batailoik armak utzi zituzten.

Italiarrek Santoña hartu zuten unean, bertan mila bat zibil euskaldun eta euskal gobernuko hainbat ordezkari eta funtzionario aurkitzen ziren, hasierako akordioa jarraituz erbestera izanen zirenak hain zuzen ere. 200 pertsona inguru itsasontzi ingelesen aurkitzen ziren, baina hauek ezin zuten portutik atera itsasontzi nazionalak blokeatzen baitzuten. Abuztuaren 27an ofizial espainolek Gezi Beltzei itsasontziak husteko eta bereganatzeko agindua eman zieten, baina hauek ez zuten agindua jarraitu. Honen ordez, euskaldunei italiar portaera errukikoaz fidatzeko eta itsasontzi ingelesak uzteko aholkatu zieten, eta hauek hala egin zuten.

Errenditutako gizonak atxilotuak izan ziren eta gainerako preso militar eta zibilekin batera, Santoñan bertan italiarren zaintzapean geratu ziren. Abuztuaren bukaeran ordea, Francok Ettore Basticori jeneralari preso euskaldun guztiak espainiar autoritateei itzultzeko agindu zion. Nazionalak preso euskaldunak ongi tratatuak izanen zirela, gaizkileak soilik izanen zirela heriotzara zigortuak eta gauza orotarako italiar autoritateak galdetuak izanen zirela agindu ondoren, irailak 4an Basticok euskal presoak Francoren eskuetan utzi zituen.

Presoak nazionalen eskuetan geratu orduko hasi ziren hauen aurkako prozesuak. Bastico hauentzako tratu mesedegarria bermatzen saiatu zen, euskaldunek nazioarteko iritzi publikoaren aurrean Italiarentzat kaltegarriak izan zitezkeen errendizioaren inguruko berri eta dokumentuak zabalduko zituzten beldur baitzen. Irailak 8an Roatta Salamancara joan zen inor ez hiltzeko, euskal buruzagiek erbestera joateko baimena izan zezaten eta soldaduak askatzeko eskatzera. Roattak errenditu ziren tropekiko zuten zor moralaz eta Italiaren aurkako kanpaina propagandistiko baten beldurraz hitz egin bazuen ere, Francok bere horretan jarraitu zuen. Roattak orduan, euskal buruzagiek herrialdea itsasontzi atzeritarretan uzteko aukera izan zezaten egin zuen eskaria, gero, atzerrian, gerra itsasontzi nazionalistek berriz atxilotzeko, italiarrak edozein erantzukizunetatik kanpo geratzeko. Francok proposamen hau ere ez zuen onartu.

Italiarrei dena ez ukatze aldera, Francok presoak sailkatzeko komisioan ofizial italiar bat onartu zuen. Azaroaren hasierako sailkatzean, 11.000 pertsona aske geratu ziren, 5.400 pertsona beharrezko lanak egitera kondenatu zituzten *Euzko Gudaroztean* parte hartzeagatik eta 5.600 oraindik espetxean zeuden. Momentu honetarako, 510 heriotza zigor eman ziren, 57 burutu zirelarik. Italiar autoritateak, komisioan italiar ofizial baten presentziak eta honek bideraturiko eskariak, heriotza zigor eta biziarteko kartzela zigor ugari ekidinen zituela pentsatzen zuten.

Euskal errendiziorako hartu emanak italiarren ardurapean egon ziren denbora guztian, beraiek informatu zutelarik Franco emandako pausuez eta honen onarpena lortu. Francorengatik, italiarrek ez lukete euskal lurraldeen egoeran zer esanik izanen, baina hauei aurka egiteko indarrik ez izaki, beraien proposamena aurrera bideratzea ahalbideratu zuen, italiarrek gerraren amaiera azkartzeko gogoz burutu zutenaren asmoa onartuaz nolabait ere.

4. Ondorioak

Espainiako Gerra Zibila, II. Mundu Gerraren aurrekarietariko bat izan zen. 1936. urterako, nazioarteko harremanak guztiz desorekaturik zeuden, eta Espainiako gerrak Europako potentzia ezberdinak harreman berrien arabera kokatu zituen, II. Mundu Gerran ikusiko zen indarren kokapena aurreratuz.

Indar hauen artean Italia aurkitzen zen, Espainian Francok ezarri nahi zuen erregimen autoritarioa laguntzeko prest. Erregimen edo ideologia aldetiko kidetasunak ez ziren ordea, parte hartze edo laguntza azkar bat bideratzeko nahikoak izanen, Italiak Hitlerren mugimenduak begiratu zituelarik. Hitlerren erabakiaren zain egote honek, Mussoliniren gutxiagotasun sentimentua agerian uzten zuen, Hitlerren menpe edo eraginpean bideratuko zituelarik bere mugimenduak. Hau, Erroma-Berlin ardatza osatu ondotik ere gertatuko zen. Ardatzaren lehenengo ekintza bateratua Espainiako Gerra Zibilean parte hartzea izan zen.

Italiak Gerra Zibilean nazionalak laguntzea ideologia faxistaren erantzun garbia izanen zen. Alde batetik Francok ezarri nahi zuen erregimen autoritarioarekiko identifikazioa zegoen; bestetik, faxismoak bere etsai handienetakoa zuen eta askorentzat Errepublikak ordezkatzeko zuten komunismoaren aurkako borroka. Faxismoak, azkenik gerraren goraipamena egiten zuen eta Espainian parte hartzeak italiar herria herri gerlari gisa aurkezteko parada eman zion.

Honi gehitu behar zaio, 1929. urteko mundu mailako krisi ekonomikoaren ondoren, herrialde industrializatuak ekonomia industria militarrean oinarritu zela. Honela, Italiako berreskurapen ekonomikoa arma industrian oinarriturik, eta ideologia faxistak italiar herri borrokalariak egiten zuen propagandarekin, altxatuak laguntzeko aukera ezin hobean aurkitu zen Mussolini.

Nazioarteko Brigadetan parte hartu zuten italiarrei zegokienez, Italiako mugimendu antifaxistako kide zirela aipatu beharra dago. Faxismoa boterera iritsi zenetik ezkerreko indarrak ia desegin baziren ere, urteak pasata Mussoliniren politikarekiko desadostasunak eta erregimenarekiko aurkakotasuna handiagotzen joanen zen. Honela gertatuko zen Etiopiako gerraren ondoren, hainbertze italiarren parte hartze militarra eta krisi ekonomikoa ekarri zuena. Herrialde barruko egoera gatazkatsuak, antifaxismoaren indartzea ekarri zuen, eta garaiko mundu mailako ideologia korrante handiei jarraiki, antifaxista hauetariko asko Espainiako Gerra Zibilean parte hartzera joan ziren. Nazioarte mailako elkartasun bati erantzuten zieten, beren herrialdean botere autoritario bat bizi eta beste herrialde batera honen sorreraren aurka borrokatzera joanen zirelarik. Italiatik brigadista moduan borrokatzera abiatutako hauen artean, ideologia ezberdintasun handiak aurkituko dira, tartean sozialistak, komunistak, anarkistak eta errepublikazale zein demokratikak.

Baino lehenago aipatu bezala, erran italiar brigadistek izan zuten parte hartzea handia izan bazen ere, Euskal Herrian hauen presentzia ez zen hain handia izan. Zergatik? Galdera honek, lehenik eta behin, Gobernu Errepublikarraren jarreran du erantzuna. Gobernuak, euskaldunen borrokarekin eta Euzko Jaurlaritzaren funtzionamenduarekin mesfidatia izanik, bere baliabideak beste fronteetan erabiltzeko aukeraren aldeko apustua egin zuen. Horrela, Nazioarteko Brigadak beste fronte batzuetara joanen ziren borrokatzera. Honi gehitu behar zaio, gerran borrokatzera etorritako antifaxistak benetan politizatuak zeudela, ideologikoki ezkerreko mugimendu handietan kokatzen zirelarik. Euskaldunen borrokak ordea, ez zuen ideologia hauekin harremanik, eta brigadistak ez ziren euskal lurretan autonomia ondoren bideratuko zen gizarte-ereduarekin identifikatzen. Ondorioz, ez da arraroa euskal lurretan italiar brigadisten parte hartzea oso txikia izatea. Autonomia aurretik, ordea, euskal lurralde errepublikarra Junten arabera antolatzen zenean, italiar brigadistek (beti ere nazioarteko beste brigadista batzuekin batera) borroka garrantzitsu batzuetan parte hartuko zuten. Hemen ere ideologiak bere garrantzia izanen du, aipaturiko Junta hauek bere gehiengan ezkerreko indarrek kontrolatuko baitituzte. Horrela, garrantzitsua izan zen italiar brigadisten parte hartzea Irunen defentsan, esate baterako.

Mussolinik Francori emandako laguntza Euskal Herrian ere nabarmendu zen. Laguntza hau arma bidalketekin hasi bazen ere, pixkanaka-pixkanaka handituz joan zen, hegazkinak, jende espezializatua eta lurreko indarrak bidaltzeraino. Hala ere, Iparralde errepublikarraren aurkako kanpainak gidatu zituen Mola jeneralaren asmoa ez zen italiarrek bidalitako hainbeste indar euskal lurretan borrokatzeko bideratzea, baino berak hasieran egin zuen garaipen errazaren kalkulu okerraren ondoren, italiar armak, hegazkinak eta lurreko indarrak erabili zituen. Agintari italiarrek, gainera, zerikusi garrantzitsua izan zuten tropa jeltkideen errendizioan.

Espainiako Gerra Zibilean inplikaturiko bi aldeak abertzaleekiko mesfidatiak ziren. Horrela, matxinatuek iparraldeko kanpaina hasi bezain laster euskal borrokalarien errendizioa edo bando aldaketa espero zuten; errepublikarrek berriz, ez zituzten beren indar eta baliabideak (denak ere hain beharrezkoak) ideologikoki hain urrun zeuden lurralde batzuetara bidali eta han galdu nahi. Errepublikak zein nazionalek beren kanpainen balorazio okerra egin zutela erran dezakegu, edo kanpainen balorazio okerra baino, balorazio politikoa-ideologikoa militarra edo estrategikoa garaitu zuela.

Bibliografia

- Attanasio, S. (1974): *Gli italiani e la guerra di Spagna*, Mursia, Milano.
- Coverdale, J. (1977): *I fascisti italiani alla guerra di Spagna*, editoriale Laterza, Bari.

- De la Granja, J. L. & Etxaniz, J.A.(1998): *Gernika y la Guerra Civil, simposium: 60 aniversario del bombardeo de Gernika (1997)*, Gernikazarra bilduma, Gernika.
- Garitaonaindia, C. & De la Granja, J.L. (1998): *La Guerra Civil en el País Vasco 50 años después*, UPV/EHU, Bilbo.
- Gelli, L.& Lenoci, A. (1995): *Dossier Spagna: gli italiani nella guerra civile, 1936-1939*, editoriale Laterza, Bari
- Pedriali, F. (1992) *Guerra di Spagna e aviazione italiana*, Aeronautica militare italiana, Ufficio storico, Roma.
- Preston, P. (2000): *La guerra civile spagnola, 1936-1939*, Mondatori, Milano.
- Puppino, M. (1986): *In Spagna per la libertà. Antifascisti friulani, giuliani e istriani nella guerra civile spagnola. 1936-1939*, Istituto Friulano per la Storia del Movimento di Liberazione, Udine.
- Rosichi, A. & Stefani, F. (1992): *La partecipazione italiana alla Guerra Civile Spagnola. Dal luglio 1936 alla fine del 1937*. Testo, (1936-1939), Volume I, Stato maggiore dell'esercito, Ufficio storico, Roma.
- Tedeschi, M. (1989): *Chiesa cattolica e guerra civile in Spagna nel 1936*, editoriale Guida, Napoli.